

“Jabetzaren dignitatea defendatzen ari gara”

2017an Eibarko baserritarren haserrea bideratu eta eragin handiko mugimendua lortu zuen Angel Gisasolak. “Elkarlan eta mobilizatorako ahalmenik izan ez dugulako” uste du hain gutxietsia dagoela basogintza

Baso jabea eta errematatzailea, aldi berean. Ange Gisasolaren ustez, “langileak bai, baina saltzaile txarrak” omen gara. Euskaldunak orohar, eta baserritarrak, zehazkiago. Bere ustez, basogintzaren inguruan dabilzan ehundaka pertsonen mobilizazio falta dute euren kontra. Pinuaren gaitzak eragin dituen “kalte itzelak” ikusita, ez du ulertzen nola eutsi dioten kalera atera gabe, mobilizatu gabe. Inork ez die kasorik egin. “Isilean mantentzen bazara, inork baitizu kasorik egiten”, dio.

Eibarko Andirao baserritarren elkartean Gisasolak baserritarren haserrea bideratu eta eragin handiko mugimendua lortu zuen herrian. Lehen sektorea, elkarturik, kanpotik jasaten zituen erasoei aurre egiten. Ahotsa altxatzen. “Eragina du”, dio. GEBEko egoitzara gonbidatu dugu, egungo basogintzaren egoera aztertzeko eta irtenbideak bilatze lanetan. “Elkarrekin lan egin behar dugu, mobilizatu eta gurea aldarrikatu”, esaten du.


Baso jabeek, bere ustez, lehen sektore osoan eta industrian ere aurki ditzakete bidelagunak euren aldarrikapenentarako. “Basogintza eta egurraren sektorean gauzen % 70 amankomuna da eta beste % 30 hobe da kanpoan uztea; prezioak, adibidez, baina beste askotan elkarrekin joan gaitezke. Elkarrekin joan ahal dugun horietan behintzat, joan gaitezen, egin dezagun ahalegina”, azaltzen du.

Mutrikun 2019an gertatu zirenak ondo ezagutzen ditu Gisasolak. Baso jabeak, Udala, talde ekologistak. “Bi baso jabeak deitu ninduten eta galdetu zidaten ea zerbaitetan lagun niezaiekeen”. Sasi jokotan ibili ziren baso jabeekin, Gisasolaren ustez. “Horietako batek esan zidanez, udal teknikariak telefonoz deitu eta ahozko salaketa bat zuela esan omen zion eta ken zitzala landatutako zuhaitzak. Eta baserritar horrek kaso egin behar zion. Dei horrekin nahikoa zuen burua makurtu eta atzera egiteko”, dio Gisasolak. Eta hori “ez da onargarria”.

Hortik aurrera, martxan jarri ziren eta “handik 19 egunetara, Osoko Bilkura zegoen Mutrikuko Udalean, gai honen inguruan. Udalekok aretoa baserritar eta baso jabeek bete genuen. Denak joan ziren. Ez dago indar handiagorik herri batean, pertsona ezagunak Udalera kexu joatea baino”, uste du Gisasolak. Urtea baino gehiago pasa da, baina bere ustez, orain galduta ematen duen indar horrek guztiak, nonbait dirau, lo. Berriz nork piztuko duen zain.

“2014an Foru Aldundiko Mendietako zuzendaria kaleratu zutenean” sortu zen, bere ustez, elkarlanerako sen hori, garatu gabea oraindik. Ehne eta Enba baserritarren sindikatuak orduan hasi ziren elkarlanean, batipat Gipuzkoan. “Elkarrekin joan gintezkeela ikusi zuten”. Eta ondo ikusi, gainera.

“Gipuzkoako udalerrri gehienetan” ordenazio bideraezinak dituzte landa ingurunean bizi diren baserritarrak. “Ez da herri jakin bateko arazoa, ez gabiltz gauza zehatz batengatik borrokan; jabetzaren dignitatea defendetzaren ari gara, arazo horiek herri askotan baititugu”, azaltzen du. “Elkarren ondokoarekin hitz egiteko ohiturarik ere ez dugu baserritarrok, baina gauzak partekatzea lortu behar dugu. Egunen batean batak esaten badu arazo bat duela, datorrenean beste lau Udalera alkatearengana joan daitezela”, dio Gisasolak.



GIPUZKOAKO

BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA